AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA AMOROTOKO UDALERRIKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN IDAZKETA, TRAMITAZIO ETA UDALARI AHOLKULARITZA LANAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO.

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea ondorengoa izango da: Hirigintza Plangintzarako Arau Subsidiarioak guztiz berrikusteko beharrezko lanak egitea, Amorotoko udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra formulatuz, eta espedientean azaltzen diren Baldintza Teknikoen Agiriarekin eta bestelako dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Baldintza Teknikoen Agiriak eta Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriak kontratu-balioa dute, eta esleitzaileak sinatu beharko ditu, adostasun seinale, kontratua gauzatzen denean.

CPV kodea :71410000-5Hirigintza zerbitzuak.

Kontratuaren izaera kontuan izanik, ez da zatietan banatzen, SPKL art. 99.3.b) ezarritakoa betetzen baita.

2. KONTRATAZIOAREN BEHARRIZANAREN JUSTIFIKAZIOA

Baldintza teknikoen agirian (edo, bere kasuan, kontratazio espedienteko beste agiriren baten) azaltzen dira kontratua hau gauzatzeko Administrazio honen arrazoiak.

3. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: BERREHUN MILA EURO (200.000,00 €), 165.289,26 € gehi 34.710,74 BEZari dagozkionak. Lizitatzaileek aurrekontua hobetu dezakete.

Kontratuaren balio zenbatetsia 165.289,26 € eurokoa da, BEZ kenduta.

Lizitatzaileek hobetu ahalko dute diru-kopuru hori,. Beti ere, ulertuko da eskaintza bakoitzaren diru-kopuruan sartuta daudela, kontratuaren eta indarreango legediaren arabera esleipendunaren kargurako diren gastu guztiak. Baita ere edozein motatako zergak, BEZ barne, bereiztutako partida bezala agertu behar delarik.

Ez da onartuko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe) gainditzen duen eskaintzarik.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Kontratuaren prezioa esleipenean agertutakoa izango da eta inoiz ere ezin izango da lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino gehiagokoa.

4. FINANTZABIDEAK

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarriko da 2023 ekitaldiko aurrekontuan, kontsignazio-konpromisoa baitago. Bestalde, beharrezkoa izanez gero, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

5. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilera sarbidea Amorotoko Udalaren webgunetik egingo da:www.amoroto.eus.

6. LANAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen xede diren lanak burutzeko epea lizitatzaileek proposatua izango da. Edozein kasutan, ezingo da izan HOGEITA HIRU(23) HILABETE baino gehiagokoa, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasiko delarik kontatzen epe hori.

Epe orokor horretatik aparte, Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako epe partzialak ere kontuan izan beharko dira. Agirian ezarritakoak gehieneko epeak dira eta lizitatzaileek laburtu ahalko dituzte.

Fase bakoitzaren hasieran, fase bakoitzari dagozkion lanen hasiera akta sinatuko da udal ordezkari eta talde idazlearen artean. Udal erregistroan lanei sarrera emandako data hartuko da fase bakoitzaren amaiera bezala, beti ere udalak lan horiei bere onespena ematen badie.

Obrak epe horietan bukatzen ez badira, kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

7. KONTRATUAREN LUZAPENA

Aurreko baldintzan ezarritakoaren kalterik gabe, kontratua luzatu ahalko da, kontratazio-organoaren akordio bitartez, SPKLren 29. artikuluan xedatutakoaren arabera.

8. NOLA ORDAINDU

Esleipendunak, benetan exekutatutako lanen ordainketa jasotzeko eskubidea du, adostutako prezioetan, emandako kontratuaren edo bere onartutako aldaketen arabera, eta baita kontratazio-organoak emandako argibideen arabera.

Kontratuaren prezioaren ordainketa, dagokion kobraketa-agiriaren aurkezpen eta bere oniritziaren arabera egingo da, SPKLan ezarritako epeetan, eta ondorengo eran:

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

- %5, Amorotoko udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketarako kontratua sinatzean.
- 5% Herritarren Partaidetzarako Programa (HPP) entregatu eta udalaren onespena jasotakoan. (Fase 1)
- 20% Planeamenduaren Aurrerakina eta Hasierako Agiri Estrategikoa prestatu, aurkeztu eta udalaren onespena jaso ostean. (Fase 2)
- 10% jendeaurreko azalpena eta herritarren partaidetza osteko txostena eta Plan Orokorraren idazketarako irizpide eta helburuen proposamen agiria prestatu eta aurkeztu ostean. (Fase 3)
- 30% HAPOren hasierako onarpenerako agiria eta Ingurumen-azterketa estrategikoaren agiria prestatu, aurkeztu eta udalaren onespena jaso ostean. (Fase 4)
- 5% jendeaurreko azalpenaren ondoriozko alegazio eta txosten sektorial guztiei erantzuteko txostena aurkeztu ostean. (Fase 5)
- 10% HAPOren behin-behineko onarpenerako agiria prestatu, aurkeztu eta udalaren onespena jaso ostean. (Fase 6)
- 10% HAPOren behin-betiko onarpenerako osatutako azken agiria prestatu, aurkeztu eta udalaren onespena jaso ostean. (Fase 7)
- %5 Plan Orokorraren behin-betiko onarpena ematen denetik hilabeteko epean.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz, eta dagozkion fakturetan jasota geratu dadin, adierazten da kontabilitate publikoko gaietan konpetentzia duen administrazio-organoa Idazkaritza-Kontuhartzailetza dela, eta Kontratazio-organoa Udalbatza dela.

9. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, SPKLren 103.1 artikuluarekin bat etorriz.

10. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5koa izango da, BEZa kenduta.

Berme hori jartzeko epea 17. baldintzan aipatutako eskakizunean azaltzen dena izango da. Bermea jartzeko bidea, berriz, SPKLren 108. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epea amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

11. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da, SPKLren 156, 157 eta 158artikuluetanaurreikusitakoaren arabera. Izapidetzerakoan, aipatutako Legean eta bera garatzen duten arauetan jarritako egin beharrekoak jarraituko dira.

12. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau elektronikoki izapidetuko da, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen xedapenekin bat etorriz. Ondorioz, udala eta lizitatzaileen arteko harremanak elektronikoki izango dira ere.

13. JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi dagozkion jakinarazpen eta komunikazio guztiak elektronikoki egingo dira, ondorengo prozedura jarraituz:

1) Jasotzailearen eskura jarri.
2) Jakinarazpen edo komunikazioren edukira sartzea.

Epeak jakinarazpen abisutik zenbatzen hasiko dira (jakinarazi behar den egintza egun berean argitaratzen bada kontratatzaileen profilean), edo jakinarazpena hartzen denetik (egintza egun berean ez bada argitaratzen kontratatzaileen profilean).

Jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igarotakoan, jasotzaileak ez badu onartzen edo errefusatzen badu, amaitutzat emango da, eta jakinarazpen izapidea formalki amaitutzat emango da.

14. KONTRATATZEKO GAIKUNTZA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan; baldin eta bere kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte; kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLren 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Halaber, bere kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez egin ahal izango dute.Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Pertsona horiek, gainera, kontratu honen jarduera edo prestazioa burutzeko eska daitekeen enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala izan beharko dute. Baldintza Teknikoen Agiriaren 5. Baldintzan zehazten da. Beharrezkoak izango dira gutxienez: talde

zuzendari bat, arkitekto titulazioarekin eta hirigintzan espezializatua, lege-aholkulari bat eta goi mailako unibertsitate-tituludun bat, ahal dela biologia, nekazal ingeniaritza edo baso ingeniaritzan espezializatua.

Horrez gain, pertsona juridikoak direnean, agiri honetan zehaztutako kontratuaren prestazioak, bere estatutu edo arauen arabera bereak diren helburu, xede edo jarduera-eremu barne egon behar dira.

Xede honetarako epe baterako eratzen diren enpresari elkarteak (ABEE) ere kontratatu ahalko dira. Ez da beharrezkoa izango agiri publiko bitartez formalizatzea bere alde esleipena egin arte.

ABEEren partaideak era solidarioan obligatuta geratuko dira Amorotoko Udalaren aurrean Baita, kontratuaren esleipendun izanez gero enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, eta zehaztu beharko dute aldi baterako elkarte horretan partaide bakoitzaren izen, inguruabar eta partaidetza.

Halaber, pertsona bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Bakarrik aurkezten direnek ere ezin izango dute ABEEetan beste proposamenik izenpetu, ez eta ABEE batean baino gehiagotan parte hartu ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko pertsona horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

Edozein kasutan ere, aldi baterako enpresa elkarte (ABEE) batean lehiatzen duten enpresa edo profesional bakoitzak bere gaikuntza eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, agiri honetako baldintzetan ezarritakoaren arabera. ABEEren kaudimena zehazteko bere kide bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira.

<u>Gutxieneko kaudimen-betekizunak:</u>

A) Kaudimen ekonomikoa.

Ekonomia eta fidantza-kaudimena, SPKLren 87. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondorengo modu bat edo batzuen bitartez egiaztatu beharko da:

- Urteko negozio-bolumena, edo urteko negozio-bolumena kontratuari dagokion esparruan izan beharko da gutxienez plegu honetan eta lizitazio iragarkian kontratuaren balio zenbatetsiaren kopuru berdina edo gehiagokoa. Hori bete beharko da eskuragarri dauden azken hiru urteetatik negozio-bolumen handiena daukan urtean.

- Arrisku profesionalak direla eta kalte-ordain aseguru bat izatea justifikatzea, gutxienez kontratuaren balio zenbatetsiaren kopuru berdina edo gehiagokoa.

- Ondare garbia, edo aktibo eta pasiboen arteko ratioa, kontratuaren balio zenbatetsiaren kopuru berdina edo gehiagokoa, urte kontuak onartzeko epea bukatuta dagoen azken ekonomia-ekitaldiaren itxieran.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

B) Gaitasun tekniko edo profesionala.

Talde idazlea gutxienez jarraian adierazitako kideez osatuta egongo da. Eta kaudimen teknikoa eta gutxieneko taldearen espezializazioa egiaztatzeko, ondorengo exijentziak bete beharko dira:

- Taldeko Zuzendaria, arkitekto titulazioduna, hirigintzan espezialitatea, egiaztatutako ezagutzekin hiri-diseinu, eraikuntza-mota eta hirigintza planeamenduaren kudeaketan. Horrez gain, egiaztatu beharko du azken 8 urteetan behin-betiko onartu den Plan Orokor baten idazketan parte hartu duela.

- Beste arkitekto bat. Ez zaio exigituko taldeko zuzendariaren esperientzia.

- Aholkulari juridikoa, Zuzenbidean lizentziatu edo graduatua egiaztatutako ezagutzekin lurzoruaren erregimen, urbanizazio eta hirigintza planeamenduaren exekuziorako tresnetan. Horrez gain, egiaztatu beharko du azken 8 urteetan behin-betiko onartu den Plan Orokor baten idazketan parte hartu duela.

- Goi mailako unibertsitate-tituludun bat, ahal dela biologia, nekazal ingeniaritza edo baso ingeniaritzan espezializatua. Lan hori enpresa espezializatu baten bitartez egin daiteke eta planaren antolamenduaren ingurumenari buruzko aholkularitza metodologiko funtzioa beteko du. Eta baita agiriak egitea Ebaluaketa Estrategikorako Aitorpenerako prozeduran. Egiaztatu beharko du azken 8 urteetan ondorengo agirietako bat behintzat idatzi eta sinatu izana:Ingurumen-inpaktuaren elkarreko ebaluaziorako azterketa, ingurumen-jasangarritasun txostena edo Ingurumen-azterketa estrategikoa, HAPOren lehen formulazio edo berrikuspenari dagokienak, hirigintza agiria behin-betiko onartuta badago eta lortuta ingurumen-inpaktuaren behin-betiko txostena, ingurumen-memoria edo ingurumen estrategikorako aitorpena.

Lau pertsona horien esperientzia erantzukizunpeko aitorpen baten jasotako zerrenda baten bidez egiaztatuko da. Zerrenda horretan egindako lan edo zerbitzu nagusiak azalduko dira, zenbatekoa, datak eta hartzailea (publikoa zein pribatua) zehaztuz. Aipatutako zerrendarekin batera egiaztatzeko beharrezkoak diren ziurtagiriak edo bestelako agiriak aurkeztuko dira.

Enpresa lizitatzaileen berariazko konpromisoa aurkeztu beharko dute, kontratuaren exekuziorako beharrezkoak diren baliabide material eta pertsonalak atxikitzeko.

Enpresa lizitatzaileek bere agirietan aurkeztu beharko dituzte prestazioa emango duten pertsonen izena eta kualifikazio profesionala, bana-banan. Ezingo dira beste batzuengandik ordezkatu ez badago Udal administrazioaren berariazko baimena, eta beti aurretiaz aztertuta ordezkatzeko proposatutakoen kurrikuluma, espezialitate eta kualifikazio maila berdina izan behar dutelarik. Betebehar hau izango du ere enpresa laguntzailea guztien langilegoak eta kontratuaren barne izango da, eta funtsezko betebehar izaera du kontratua bertan behera uzteko edo ez betetzeagatik zigorrak ezartzeari dagokionez.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Idazketa taldeko bi lagunek gutxienez hirigintza ezagutzak eta euskaraz mintzatzeko gaitasuna dauzkatela egiaztatu beharko da, bai plana egiteko prozeduran zehar, bai herritarren parte hartzerako foroetan, bai herritarren informaziorako saioetan eta horretarako udalak deitutako batzorde teknikoetan. C1/HE3 euskaran titulazioa edo baliokidea aurkeztu beharko da.

Exijentzia hau funtsezko betebeharra da eta bera ez bada betetzen ezingo da esleitzaile izan. Ez bada egiaztatzen betetzen dela, proposamena baztertuko da eta hurrengo lizitatzailearekin ekingo zaio egiaztatze teknikoari kontrolari, eskaintzak sailkaturik geratu diren ordena jarraituz.

Baldintza honetan zehaztutako gutxieneko talde idazleak Euskal Autonomi Erkidegoan kokatutako bulegoa izan beharko du.

Taldearen zuzendaria, Plan Orokorraren idazle lanen kalitatea bermatzeko funtsezko eta oinarrizko elementua, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako bulegoan egon beharko da normalean. Horrela, udalak eskatuz gero, modu azkar eta malguan antolatu daiteke bere agerpena, eta ezin izango da agerpen hori taldeko beste kideetan delegatu.

15. ESLEIPENERAKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK

Kontratu honen esleipena, kontratazio-organoak egingo du, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, ohiko izapidetze eta prozedura ireki bitartez, SPKLren 156 eta ondorengo artikuluen arabera.

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena, balio-judizio baten araberakoak direnak eta automatikoki antzematen direnen artean bereiztuta, honako hauek dira:

a) BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKOAK DIREN IRIZPIDEAK..... (45%) 45 puntu.

a.1) Proposamen metodologikoa eta antolakuntza teknikoa.....Gehienez 20 puntu.

Talde lizitatzaileak lanak garatzeko erabiliko den metodologia azalduko du; planeamenduarekin lortu nahi diren helburuen arabera eta proposatutako hirigintza ekintza-politikaren arabera.

Horretarako, lanak egiteko plan bat egingo da, ondorengoak dituelarik:

- Memoria, lizitatzaileak egiteko konpromisoa hartzen dituen lan bakoitzaren definizio zehatza agertuz, erabili den metodologia ere zehaztuz.

- Exekuziorako egutegi kronologiko osoa, fase bakoitzeko epeak adieraziz. Plegu honetan ezarritako epe partzialekin bat etorri beharko da.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

- Atal bakoitzean parte hartuko duen lan-taldearen deskribapena, bere titulazioei buruzko datuak emanez. Derrigorrezko edo gutxienez aurretiaz ezarritako kideetaz aparte, baloratuko da lan-taldearen jakintza-arlo aniztasuna, kontuan hartuz jakintza-arlo berdinetako giza-baliabide gehiago izanik, edo beste goi tituludun batzuekin, soziologia, geologia, ekonomia, paisajismo, informatika, hiri-geografia, ingeniaritza zibila edo agronomoa, publizitatea, … Horrez gain, baloratuko da lan-taldeak aurretiaz ere elkarrekin lan egin izana planeamendu orokorraren idazketan.

Beraien berariazko konpromisoa azaldu beharko da, lana egiteko konpromisoa eta bateraezintasun erregimenaren onarpen-aitorpena, bere bitartez konpromisoa hartzen dutelarik ez parte hartzeko lan partikularretan edo Amorotoko Udala ez den erakundeei dagozkienetan, beti ere eragina edo erlazioa izan baliteke planeamendu agiriak aitortu daitezken hirigintza-probetxamendu berriekin; lana esleituz gero, pleguaren objektu den planeamendu agiriaren idazketa prozesuan eta bere eremuan, eta baita behin-betiko onarpena izan eta 2 urte igaro arte. Bateraezintasun erregimen honek bai pertsona fisikoei, bai partaide izan daiteken pertsona juridikoei eragingo die.

Horrez gain, metodologia-memoriak diagnosi-memoria izango du bere barne, ondorengo eran:

Diagnosi-memoriak udalerriaren oraingo egoeraren analisia izango du, aplikagarri den araudiarekin bere erlazioa eta hurrengo urteetarako kontuan hartzeko pauta orokorrak. Guzti hau bai jadanik garatutako eremuetan bai garatzeko eremuetan edo ez urbanizagarrietan.

Idatzizko agiriak eta grafikoak izan ahalko ditu dokumentuak. Gehienez 12 orri alde batera, gutxieneko letra tamaina 10 eta A4 formatua; eta 4 plano, gehieneko tamaina A0. Elementu, grafiko edo taularen bat zehaztasun gehiagorekin adierazteko, orri tamaina handiagoa beharrezkoa balitz, onartuko dira gehienez beste 2 orri A3 tamainan.

Ezarritako orri edo elementu kopuru gehiena igarotzen bada, -0,5 punturekin zigortuko da gehiagoko orri edo plano bakoitzeko.

Baloratuko da gaur egungo egoeraren analisia, arazo aipagarrienak azalduz. Arlo honetan baloratuko da bai udalerrian konpondu gabeko arazoak bai Udal araudian konpondu beharreko gabeziak, kontraesanak edo bestelakoak. Baita baloratuko da udalerriaren egoeraren analisia, aplikagarri diren udalerriaz gaindiko araudien ikuspuntutik, eta baita legozkion proposamen edo jarraibideak.

Memoria hori, lizitatzaileak kontratuaren exekuzioan taldeko arkitekto zuzendarirako proposatutakoak sinatu beharko du gutxienez.

Eskaintzen balorazioa, proposamen metodologiko eta diagnosi-memoria bakoitzean eskainitako edukien konparaketa zehatzaren bidez egingo da, Plegua honetan ezarritakoan oinarrituz.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

a.2) Proposatutako hobekuntzak …….....Gehienez 15 puntu

Baloratuko dira, udalaren iritziz interesgarri edo berritzaile diren proposamenak, ondorengo helburuak betetzeko: plan orokor praktikoa lortzea, udalerriko benetako beharrizanei egokitua, eta era berean herriak ulertzeko era berrietan eredugarria; herri jasangarriak, lurzorua aurrezten dutenak, bere balio paisajistiko, historiko eta kulturalak bultzatuz, pertsonengan pentsatuz, auzoen arteko mugikortasuna eta lotura, e.a.,..

Talde idazlearen konpromisoaren eta izan daiteken interesaren arabera, positiboki baloratuko diren aspektuak aditzera ematen dira:

- Genero hirigintzaren ikuspuntutik zehaztapenak proposatzen dituztena.
- Mugikortasunaren eta osasunaren hobekuntzarako bideratutako aspektuak aurkezten dituztenak.
- Eraikuntza eta urbanizazio ordenantzetan eraginkortasun energetiko eta jasangarritasun aspektuak aurkezten dituztena.
- Baliabide naturalen probetxamendu jasangarria sustatu eta bultzatzen dutenak.
- Etxebizitza, ekipamendu eta oinarrizko zerbitzuetan udalerriko benetako beharrizanen ikerketa zehatza egiten dutenak.
- Etxebizitza hutsen eta bigarren etxebizitzen problematikaren azterketa zehaztua egin osteko proposamenak, bai hiri zoruan bai zoru ez urbanizagarrian.
- Talde teknikoa udal bulegoetan izatea informazioa bildu, eman eta kontrastatzeko. Eta taldearen zuzendariarengana jotzeko erraztasuna eta malgutasuna, modu azkar eta malguan antolatzeko bera udal bulegoetan izatea.
- Udalerriko ondare natural eta eraikia balioztatzeko apustua egiten dutenak, paisaiaren ikerketa, eraikuntzen katalogazioa, e.a. barne hartuz.
- Landa inguruaren integrazio hobea lortzeko proposamenak eta konponbideak ematen dituztenak, lurzoruaren babesaren ikuspuntutik, eta baita baserrien bizigarritasunari dagokionez. Horretarako, udalak dituen datuak bilduko litzateke, eta baita bertan lekuan. Bereziki arreta ipiniz udalerriko banandutako etxebizitza, baserri eta beste eraikuntzen egoera eta okupazioan.

Idatzizko agiriak eta grafikoak izan ahalko ditu dokumentuak. Gehienez 4 orri alde batera, gutxieneko letra tamaina 10 eta A4 formatua. Elementu, grafiko edo taularen bat zehaztasun gehiagorekin adierazteko, orri tamaina handiagoa beharrezkoa balitz, onartuko dira gehienez beste orri bat A3 tamainan.

a.3) Parte-hartzerako mekanismoa..... Gehienez 5 puntu.

Kontuan izanik Amorotoko Udaletik ematen zaion garrantzia herritarren parte hartzeari, lizitatzaileak eskaini daiteke, hedapen eta komunikazioa hobetzeko, legezko gutxiengoen gaindiko osagarriak, herritarren parte hartzea hobetzeko: hitzaldiak, ikus entzutekoak, esku-orriak, jendeari arreta sistemak, udaleko webgunean edukiak, informazio-saio osagarriak, e.a.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Baloratuko da proposamena egokitzea udalerriko errealitatera eta herritarren parte-hartze programako fase bakoitzean lortu nahi diren helburuei.

Idatzizko agiriak eta grafikoak izan ahalko ditu dokumentuak. Gehienez 2 orri alde batera, gutxieneko letra tamaina 10 eta A4 formatua. Elementu, grafiko edo taularen bat zehaztasun gehiagorekin adierazteko, orri tamaina handiagoa beharrezkoa balitz, onartuko dira gehienez beste orri bat A3 tamainan.

a.4) Hiri planeamenduan genero-ikuspuntua txertatzeko mekanismoa..... Gehienez 5 puntu.

Talde lizitatzaileak azalduko ditu egiteko lanak udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko otsailaren 18ko 4/2005 Legea txertatzeko.

Legearen helburuak betetzeko proposatutako metodologiaren egokitasuna baloratzeaz gain, baloratuko da hobeto txertatzea herritarren parte-hartze prozesuan eta idazten diren hirigintza-agiri bakoitzean ere.

Idatzizko agiriak eta grafikoak izan ahalko ditu dokumentuak. Gehienez 2 orri alde batera, gutxieneko letra tamaina 10 eta A4 formatua. Elementu, grafiko edo taularen bat zehaztasun gehiagorekin adierazteko, orri tamaina handiagoa beharrezkoa balitz, onartuko dira gehienez beste orri bat A3 tamainan.

SPKLren 146.3. artikuluaren arabera, hautaketa-prozeduran jarraitzeko, balio-judizio baten araberako irizpideetan orokorrean puntuaketaren **%50gutxieneko ataria** jartzen da. Hori horrela, Kontratazio-Mahaiak ez ditu kontutan hartuko 22,50 puntura heltzen ez diren eskaintzak.

b) AUTOMATIKOKI ANTZEMATEN DIREN IRIZPIDEAK..... (55%) 55 puntu.

b.1) Eskaintza ekonomikoa.....Gehienez 35 puntu

Eskaintza ekonomikoa baloratuko da lege triangelu eta lineal batez bitartez; gehieneko puntuaketa emanez (35 puntu) eskaintza ekonomiko baxuenari, beti ere ausarkerian ez badago, eta gutxieneko puntuaketa (0 puntu) lizitaziorako aurrekontuari.

Aipatutako baloreen arteko aurrekontu-eskaintzen balorazioa dagozkion muturreko balorazioen interpolazio linealaren bidez lortuko da, izanik:

PL: Lizitaziorako aurrekontua.
OEMB: Eskaintza ekonomiko baxuena.
OLic: Lizitatzailearen eskaintza ekonomikoa.
VMax: Gehieneko balorazioa (35 puntu).
Vx: Eskaintzaren balorazioa.

$$Vx = VMax \times \left(\frac{PL - OLic}{PL - OEMB} \right)$$

Eskaintzak neurrigabeak edo anormalak direla eta proposamenak ezin litezkeela bete uste izango da eskaintzaren zenbatekoa, prezioa lizitaziorako aurrekontuaren hamar (10) portzentaje-unitate baino txikiagoa bada.

Kasu horretan plegu honetako 19. baldintzan ezarritako prozedura jarraituko da, SPKLren 149. artikuluarekin batera.

b.2) Exekuzio-epea ..... Gehienez 10 puntu

Kontratu honen exekuzio-epea 23 hiletakoa da, plegu honetako 6. baldintzan xedatutakoaren arabera, eta baldintza teknikoen pleguaren 2.1 baldintzan zehaztutakoa.

2 puntu emango dira exekuzio-epea laburtzen den hilabete bakoitzeko, gehienez 5 hilabeteko laburtzea kontuan izango delarik.

b.3) Hirigintzan eta lurralde antolamenduan formakuntza eta esperientzia..... Gehienez 10 puntu

Atal honetan baloratuko da hirigintza edo lurralde antolamenduari buruzko graduondoko ikastaroak egin izana, unibertsitate batek edo administrazio publikoetako formakuntza ikastetxe ofizial batek emandakoa. Egiaztatuko da tituluaren kopia bidez, alde bietatik, formakuntza orduak agertu behar direlarik.

2,5 puntu emango dira gutxienez 300 formakuntza-orduko graduondo edo master bakoitzagatik.

Lanei atxikitutako pertsona bakoitzagatik, graduondo edo master bakar batek puntuatuko du.

Ez dira kontuan izango gaitzaile edo lanbiderako sarbide diren graduondoko edo masterrak, ezta aurretiaz A kartazalean adierazitakoak.

Baita ere, baloratuko da 1000 biztanle arteko udalerrietan behin-betiko onartu den plan orokor baten idazketan parte hartu izana azken 8 urteetan.

5 puntu emango dira mota horretako udalerrietan idatzitako plan bakoitzeko.

16. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Ibon Gabiola Idoiagabeitia, Amorotoko Udaleko alkate-udalburua.

Batzordekideak: Miren Begoña Laka Ortuondo, Amorotoko Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea.
Jon Imaz Kortabitarte, Amorotoko Udaleko operarioa.
Mahaiko idazkaria: Josune Arostegi Laka, Amorotoko Udaleko administrari-laguntzailea.

Mahaiak beharrezko deritzon aholkulari teknikoen laguntza eskatu liteke. Horrez gain, udal arkitekto aholkulariaren laguntza jasoko du.

17. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA PLEGUAK ESKURATZEA

Lizitazio hau udal honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Euskadiko Kontratazio Elektronikorako Plataforman dagoena.

Proposamenak elektroniko aurkeztu beharko dira aipatutako Plataforma horren bidez, egutegiko HOGEITA HAMAR (30) egun naturaleko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, epearen azken eguneko 14:00ak arte. Eskaintzak aurkezteko azken eguna gaitasun gabea balitz, epea luzatuko da hurrengo gai den egunera arte.

Amorotoko Udaleko kontratatzailearen profilera sarbidea **www.amoroto.eus** helbidearen bitartez egin daiteke. Gune berean, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango da.

Lizitazio prozedura honetan ez dira onartuko aipatutako bitartekari elektronikoen bitartez aurkezten ez diren eskaintzak Horretarako, derrigorrezkoa da Euskadiko Kontratazio Plataformako edo Sektore Publiko Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko edozein agiri ezin bada behar bezala ikusi, baimenduko zaio lizitatzaileari, jakinarazten zaionetik gehieneko 24 orduko epean, aurkez dezan formatu digitalean erratutako fitxeroan zegoen agiria. Geroztik aurkeztutako agiriak ezingo du inolako aldaketarik izan, eskaintzan aurkeztutako originalarekin alderatuz. Kontratazio Organoak egiaztatzen badu agiriak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontutan izango.

Eskaintzak Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honetan xedatutakoari egokitu beharko dira eta bere aurkezpenak suposatuko du lizitatzaileak onartzen dituela oso-osorik aipatutako baldintza edo betebehar horiek, inolako salbuespen edo erreparorik gabe. Baita ere, suposatuko du baimena ematen zaiela Kontratazio Mahai eta Organoari datuak kontsultatzeko, bai Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, bai Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.

Lizitatzaile bakoitzak eskaintza bat bakarrik aurkeztu ahal izango du, aldaeren onarpenaren kalterik gabe. Ezin izango du ere aldi baterako enpresa elkarte batean eskaintzarik aurkeztu, bakarka aurkeztu badu, ezta ere aldi baterako elkarte baten baino

gehiagotan agertu. Arau horiek hausteak berekin ekarriko du lizitatzaileak aurkeztutako eskaintza guztiak ez onartzea.

Informazio publikoa lortzeko indarrean dagoen legerian xedatutakoaren kalterik gabe, ezta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari eta esleipenaren publizitateari buruzko SPKLren xedapenen kalterik gabe, lizitatzaileek izendatu ahalko dute isilpeko lez eskaintzak egiterakoan emandako informazioaren zati bat, bereziki sekretu tekniko edo komertzialei dagokiena eta ezkutuko alderdienak. Udalak ezingo du informazio hori zabaldu dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek kartazal elektroniko bi aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo bera ordezkatzen duen pertsonak izenpetuta; eta baldintza honetan, kartazal bakoitzerako zehazten den edukiarekin.

«A» KARTAZAL ELEKTRONIKOA.-«GAITASUNA, KAUDIMENA ETA BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKO IRIZPIDEAK»

Kartazal honetan aurkeztu beharreko agiriak:

a) Gaitutako posta elektronikoko helbidea. (Eranskina III)

Gaitutako posta elektronikoko helbide bat izendatu behar da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera. Bertan egingo dira kontratazio espediente honi dagozkion jakinarazpenak.

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko berariazko aitorpena. (Eranskina I)

Aitorpen horretan lizitatzaileak agertuko du Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta baita plegu honetan, bereziki 14 eta 19. baldintzetan, kontratua lortzeko ezarritako betebeharrak.

Dena den, Kontratazio Mahaiak edo Organoak, prozedurara ondo bukatzea bermatzeko, eskatu dezake, esleipena baino lehenagoko edozein unetan, lizitatzaileek aurkeztu ditzatela dagozkion agiriak, egiaztatzeko betetzen dituzten dituztela plegu honetan ezarritako baldintzak kontratuaren esleipenduna izateko.

Aldi baterako enpresa elkarte batean lehiatzen duten ekonomia-operadoreek, bakoitzak bere erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu beharko du. Baita, kontratuaren esleipendun izanez gero enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, eta zehaztu beharko dute aldi baterako elkarte horretan partaide bakoitzaren izen, inguruabar eta partaidetza.

SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimen eta baliabideetan oinarritzen den kasuetan, horitariko bakoitzak ere erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu beharko du.

c) Plegu honetako 15. baldintzan zehaztutako balore-judizio baten araberakoak diren irizpideei dagozkien agiriak.

«B» KARTAZAL ELEKTRONIKOA.- «AUTOMATIKOKI ANTZEMATEN DIREN IRIZPIDEAK»

Kartazal honek ondorengo agiriak izango ditu:

a) Eskaintza ekonomikoa II. eranskineko ereduari egokitua.

Ez da onartuko eskaintzarik, errore, ahazte edo ezabaketak izan eta eskaintza kontuan izateko administrazioak ezinbestekotzat jotzen duena ezin bada jakin.

Eskaintzaren bat ez badator bat aztertutako eta onartutako agiriekin, edo lizitazio aurrekontua baino gehiagokoa bada, nabarmen aldatzen bada emandako eredua, eskaintzaren zenbatekoan ageriko errorea balego, edo lizitatzaileak aitortuko balu errorea duela eta ezin dela bete, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du. Ez da arrazoi nahiko izango baztertzeko, emandako ereduan hitz batzuek aldatzea, bere zentzua ez badu aldatzen.

Proposamenean adierazi beharko da, aparteko partida bezala, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion zenbatekoa.

Ondorio guztietarako ulertuko da aurkeztutako eskaintzak ondorengoak betetzen dituela: zerbitzuaren zenbatekoa, dagozkion zerga, tasa, gastu edo zerga arloko beste edozein, eskubideak, gastuak, garraio, emate eta bere kasuan instalakuntza gastuak, aseguruak, arantzelak, edozein motako lizentzia eta baimenak; baita kontratistaren industria-onura.

b) Plegu honetako 15. baldintzan zehaztutako automatikoki antzematen diren beste irizpideei dagozkienak. (Exekuzio-epea eta hirigintza eta lurralde antolamenduan formakuntza eta esperientzia)

Legean eta plegu honetan exijitutako nortasun, gaitasun eta kaudimen betebeharrak badaudela hautemateko une erabakigarria eskaintzak aurkezteko epearen bukaerakoa izango da.

Baztertuak izango dira kartazal bakoitzeko edukia errespetatzen ez duten eskaintzak, ez badituzte bereizten automatikoki antzematen diren irizpideak eta ez direnak automatikoki antzematen.

Administrazioak ahalko du egiaztatu, bai esleipena baino lehenago, bai kontratuaren zehar, “A” eta “B” kartazaletako agirien edukiaren egiazkotasuna. Ulertuko da enpresak

aurkeztutako datu eta inguruabarren faltsutasuna kontratua baliogabetzeko arrazoi izan daitekeela, bere kasuan, kontratistari dagokion betetze eza dela eta, utzitako behin-betiko bermea galduz, edo ez bada utzi oraindik, bere baliozko kalteordaina emanez. Horrez gain, administrazioari ordaindu beharko dizkio sortutako kalteak, utzitako fidantza baino gehiago diren heinean.

19. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

1. «A» KARTAZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

Kontratazio Mahaiak, gutxienez 48 ordu aurretik kontratatzailearen profilean argitaratuko den toki, egun eta orduan, "A" kartazalak elektronikoki irekiko ditu eta aztertuko du bertan dauden agiriak, bai kontratua lortzeko ezarritako betebeharren betetzeari dagokienak, bai balio-judizio baten araberako irizpideei buruzkoak.

Egintza honen ondoren, Mahaiak udal zerbitzu teknikoei igorriko dizkie agiriak, aipatutako irizpideen balorazioa egin dezaten. Edo, bere kasuan, beharrezko deritzon txosten teknikoak eskatuko ditu, SPKLren 146.2.b), 150.1 eta 157.5 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hori horrela, beharrezko balitzateke agirietan akats eta hutsuneak zuzentzea, Mahaiak gehienez sei laneguneko epea emango du beraiek zuzentzeko, urriaren 30eko 20/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko RD817/2009ren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

«B» KARTAZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA ETA LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGIN ARTEKO EGINTZAK

«A» kartazal elektronikoa ireki eta zerbitzu tekniko eta, eskatutako txosten tekniko bitartez, balio-judizio baten araberako irizpideen balorazioa egin ondoren, Kontratazio Mahaiak, udaleko kontratatzailearen profilean argitaratuko den toki, egun eta orduan, «B» kartazalak irekiko ditu eta ondorengo egintzei ekingo dio:

1.- Balore-judizio baten araberako irizpideen balorazioaren emaitza jakitera ematea.

2.- Lizitatzaile bakoitzaren «B» kartazala irekitzea eta bere edukia irakurtzea.

Egintza horren ondoren, saio berdinean edo beharrezko diren saioetan, Mahaiak ondorengo egintzak burutuko ditu:

1.- Bere kasuan, pleguko betebehar eta baldintzak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu.

2.- Automatikoki edo formulak erabiliz zenbatu daitezken irizpideak baloratzea.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Beharrezkoa baderitzo, erabakiko du agiriak udal zerbitzu teknikoei igortzea, aipatutako irizpideen arabera eskaintzak aztertzeko eta beharrezko kalkuluak egiteko .

3.- Eskaintza bakoitzak lortutako puntuaketa osoa ezartzea eta gutxiagotuz doan ordenan sailkatzea.

4.- Puntuaketa onena duen lizitatzailearen aldeko esleipen-proposamena egitea.

Berdinketa sortuko balitz eskaintza hobeen artean, kontratuaren esleipen proposamena zenbateko gutxieneko eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen lizitatzailearen alde egingo da; berdinketak jarraituko balu, Kontratazio Mahaiak egindako zozketa bidez egingo da esleipen proposamena.

Esleipen proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde. Administrazioarekiko eskubideak ez dira eskuratuko kontratua gauzatzen ez den bitartean.

Puntuaketa onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza anormalki baxuegia dela susmatzen bada, 149. artikuluanaurreikusitako parametroen arabera, Mahaiak aipatutako artikuluan araututako prozedura jarraituko du. Bere eskaintza justifikatzeko lizitatzaileari emango zaion epea gehienez bost lanegunekoa izango da, dagokion jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatuta.

Egindako guztia jasota geratuko da espedientean, derrigorrez idatzi behar diren akten bitartez.

Kontratazio organoak mahaiaren proposamena onartutakoan, komunikazio elektroniko bitartez errekerimendua egingo zaio kontratuaren esleipenerako proposatutako lizitatzaileari, komunikazioa bidaltzen denetik zenbatu beharreko hamar laneguneko epean ondoren adierazten diren egintzak egin edo adierazten diren agiriak aurkez ditzan:

a) Behin-betiko bermea eratu denaren egiaztagiria aurkeztea.

b) 140. artikuluko 1 ataleko a) tik c) letrak aipatzen dituztenei buruzko agiriak, jadanik aurkeztuta ez badaude, bai lizitatzailearenak bai erabiliko diren beste enpresenak ere, finantza-kaudimen edo gaitasun tekniko edo profesionalari buruzkoak barne.

c) Bere kasuan, kontratuaren exekuzioan erabiliko dituela agindutako bitartekariak benetan dituela egiaztatzeko agiriak, SPKLren 76.2 artikuluaren arabera.

d) EAB bat denean esleipenduna, aurretik adierazitako agiriez gain, ondorengoak aurkeztu beharko dira: bere eraketaren eskritura publikoa, emandako IFK eta ahalmen nahikorekin ordezkarien izendapena.

Errekerimendua ez bada betetzen behar bezala emandako epean, lizitatzaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Eta lizitazio aurrekontuaren, BEZ gabe, %3a exijituko zaio zigor bezala.

Kasu horretan puntuaketan hurrengoa den hautagaiaren aldeko esleipen proposamena egingo da, azken honi epea emanez agiri berberak aurkezteko.

20. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratua esleitzeko epea gehienez hiru hilabetekoa izango da, proposamenen irekitzetik zenbatuta. Epea hamabost laneguneta luzatuko da eskaintzetan balio anormalak edo proportzio gabeak antzematen direnean.

Kontuhartzailetzak gehienez 5 egutegiko egunetan gastu-konpromisoa ikuskatu ondoren, 159.4 artikuluaren arabera, kontratazio-organoak esleipena onartuko du, bost laneguneko epean, lehen sailkatuari eskatutako agiriak jasotzen direnetik kontatzen hasita, SPKLren 150.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta udal honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den hamabost (15) egun baliodun baino gehiagokoa izan, esleipendunak Administrazio honen bulegoetara etorri beharko du, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko. Esleipendunak aurretiaz egiaztatu beharko du Kontratazio Mahaiaren aurrean erantzukizun zibileko aseguru-poliza sinatu izana.

Esleipendunari dagokion arrazoiren batengatik ez bada kontratua sinatu esandako epean, lizitazio aurrekontuaren %3ko zenbatekoa eskatuko zaio. Kasu horretan puntuaketan hurrengoa den hautagaiaren alde esleituko da kontratua, beharrezko agiriak aurkeztutakoan.

21. KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA

SPKLren 152. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-organoak, behar bezala arrazoitutako herri-onurako arrazoiengatik, erabaki ahal izango dugu kontratua ez esleitzea edo ez gauzatzea. Baita ere, prozedura bertan behera utzi dezake konpondu ezineko akatsa aurkitzen badu kontratua prestatzeko arauei edo esleipen prozedurari buruzko arauei dagokienez. Bai kontratua ez gauzatzeko erabakia, bai prozedura bertan behera uztea kontratua formalizatu baino lehen egin beharko dira, eta aipatutako artikuluan ezarritako baldintzak betez.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

III. KONTRATUA BURUTZEA

22. KONTRATUAREN BURUTZEAREN ERREGIMEN OROKORRA

Kontratua burutuko da bere baldintzetan eta pleguetan xedatutakoari loturik, eta bera interpretatzeko kontratuaren arduradunak emandako argibideei jarraituz.

Beti ere, zerbitzua plegu honetan ezarritako baldintzei eta berari atxikitutako xehetasun teknikoei osoki loturik eman beharko da, eta baita azaroaren 8ko Sektore Publikoko 9/2017 Legeak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak xedatutakoari. Bereziki, kontratuaren exekuzioa administrazioaren zuzentze, ikuskatze eta kontrolpean egingo da, eskumen horiek bai idatziz bai ahoz erabiliko dituelarik.

Kontratistari edo bere babespean dauden pertsonei dagozkien egintza eta hutsegiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen bada, Administrazioak exijitu dezake kontratuaren exekuzioa ondo jarraitzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak ezartzeko.

Kontratista, garatzen dituen lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango da, baita administrazioarentzat edo hirugarren batentzatizan daitezken ondorioena, kontratuaren exekuzioan egindako hutsegite, akats, metodo desegoki edo konklusio okerrengatik.

Administrazioak erabakiko du kontratistak egindako prestazioak bete baditu bere exekuzio eta betetzerako ezarritako baldintzak; eta bere kasuan errekerituko dio kontratatutako prestazioak egitea eta ohartutako akatsak konpontzea. Egindako lanak ez badira egokitzen kontratatutako prestaziora, kontratistari egotzitako akats edo hutsuneengatik, uko egin ahalko du eta ez du ordaintzeko obligaziorik izango edo, bere kasuan, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

23.- KONTRATUA BURUTZEKO GIZARTEARI, ETIKARI ETA INGURUMENARI DAGOKIEN EDO BESTELAKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau burutu ahal izateko, gizarte, etika, lan eta ingurumen-alorreko edo bestelako baldintza berezi hauek bete beharko dira derrigorrez:

Dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizun eta genero rolen eta -identitateen aniztasuna.

Enpresa esleipendunaren plantillarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aplikatuko dela bermatuko da, honako hauekin lotutako politiketan: prestakuntza,

langileen hautaketa, sailkapen edo kategoria profesionalak, arreta, mailaz igotzea, soldatak, egonkortasuna edo lanean jarraitzea, ordezkaritza, lan-segurtasuna eta -osasuna, eta lanaldiaren iraupena eta antolamendua.

Esleipendunak, kontratua burutzen den bitarteko kontratazio berrietan, baja eta ordezkapenetan, konpromisoa hartu behar du lanean sartzen direnen gutxienez %50a enplegu-bulegoetan langabetu bezala inskribatutako pertsonak izango direla, lehentasuna dutelarik lan-merkatura sartzeko zailtasunak duten kolektiboak (emakumeak eta luzaroan langabetuak). Kontratatutako obraren izaera berezia dela eta, ezinezkoa denean aipatutako ehunekoan profil horietako pertsona langabetuak kontratatzea, esleipendunak azaldu, arrazoitu eta justifikatu egin beharko du eta, beti ere, administrazioak onartu beharko ditu salbuespen horiek.

Idatziak, oharrak, seinalizazioak eta bestelako mezu orokorrak gutxienez euskaraz egingo dira. Jarri aurretik, udalean egiaztatuko da hizkuntz aldetik zuzenak direla.

Gutxienez, talde idazleko bi partaidek euskararen ezaguera nahikoa egiaztatu beharko dute, ahoz zein idatziz euskaraz jardun ahal izateko bestekoa planaren egite-prozesuan, herritarren partaidetzarako foroetan eta baita udalak deitutako herritarrentzako informazio saioetan eta batzorde teknikoetan.

Baldintza horiek kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz, SPKLren 201 artikuluak xedatzen duenaren arabera, betebehar horiek ez betetzeak kontratua etetea ekar dezake berarekin, 211.1.f). artikuluan adierazi den moduan.

24. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasun eta osasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Baita ere, aplikagarri zaion sektoreko hitzarmen kolektiboarenak ere. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

25. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, obrak burutzen diren bitartean, kontratistaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

26. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLren 203tik 207ra eta 242. artikuluetan espresuki jasotako egoera eta baldintzetan beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez baditu.

27. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrean eta SPKLren hogeita bostgarren xedapen gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

28. KONTRATUA BETETZEA, LANAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratua betetzat emango da kontratistak egite edo zerbitzu guztia amaitutakoan, beti ere kontratuan ezarritakoaren arabera egin bada eta administrazioaren gogobetetzearekin.

Egitea amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obren harrerarako egintza formal eta positiboa egingo da eta horren akta egingo da.

Gainera, HOGEITA LAU (24) HILABETEko epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako berme bezala jartzen dena.

Nolanahi ere, berme-epean egiaztatzen bada egindako lanetan akats edo okerrak daudela, kontratazio-organoak kontratistari eska dakioke beraiek konpontzeko.

Berme-epea bukaturik eta administrazioak ez badu SPKLren 311 artikuluan ezarritako eragozpenik edo denuntziarik jarri, kontratistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

29. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

Kontratistari zigorrak ezarriko zaizkio, ondoren adierazitako arrazoiengatik:

a) Kontratua burutzeko epeak ez betetzea

Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko, BEZ kenduta.

Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

Kontratista atzerapen-egoeran izateko ez da beharrezkoa izango administrazioaren aldetik aurretiazko interpelaziorik.

b) Prestazioen burutzapen partziala ez betetzea

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du, BEZ kenduta; eta diru-zigorrek guztira hitzartutako prezioaren 100eko 50a ezingo dute gainditu.

c) Ingurumen, gizarte edo lan-alorretako betebeharrak ez betetzea

Ingurumen, gizarte eta lan-alorretako betebeharrak ez badira betetzen, Administrazioak, SPKLren 201.artikulua aplikatuz, diru-zigorrak ezarri ahalko ditu; kontratuaren prezioaren ehuneko hamar baino gehiagokoak ez, BEZ kenduta. Diru-zigorren osokoa ezingo da izan adostutako prezioaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiagokoa.

d) Azpi kontratistekin betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluaren kalterik gabe, azpi kontratistekin dituen betebeharrak ez baditu betetzen, Administrazioak diru-zigorrak ezarri ahalko ditu, kontratuaren prezioaren ehuneko hamar baino gehiagokoak ez, BEZ kenduta. Diru-zigorren osokoa ezingo da izan adostutako prezioaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiagokoa.

30. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211 eta 245. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Kontratua amaitzeak fidantza galduz, ez du baztertzen administrazioak eskubidea izan daiteke kalteordaina, sortutako kalteengatik, utzitako bermearen zenbatetik gorakoak direnean.

31. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratistak laga daitezke kontratuaren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati, beti ere:

Lagatzailearen balio tekniko edo pertsonalak ez badira izan kontratuaren esleipenaren arrazoi; lagapena dela eta ez bada merkatuan egiazko konpetentzia murrizketa sortzen; lagapenak ez badu funtsezko aldaketarik suposatzen kontratistaren ezaugarrietan, horiek kontratuko oinarrizko elementua izan badira; eta lagapena egiten bada SPKLren 214.2 artikuluko betebehar eta baldintzak betez.

32. AZPIKONTRATATZEA

Kontratistak prestazioaren zati bat hirugarren batzuekin adostu dezake. Edozein kasutan, azpikontratazio horrek azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 215 eta 216. artikuluetan ezarritako baldintza guztiak bete beharko ditu .

IV.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

33. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea; eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, aipatutako legearen aurka ez doan arauetan; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

34. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuaren burutzea dela eta kontratistari legokoon erantzukizuna adieraztea, kontratuaren burutzea etetea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea SPKLren eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

35. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren bideari amaiera emango diote, hala badagokio, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44. artikulutik 60. artikulura xedatutakoaren arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1ko

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

39/2015 Legean araututako edozein artikuluren arabera, kontratazioaren alorrean errekurtso berezia jartzeko aukeraren aurka egin gabe.

Amoroton, 2022ko azaroaren 28an.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

I ERANSKINA. KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO AITORPEN EREDUA

..... jaunak/andreak, helbidea .....…… PK ……, NAN zk. ....., telefonoa ..... e-posta..... duenak, zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean edo ondorengoaren ordezkaritzan ..... helbidea ..... PK ……, telefonoa ..... NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera) ....., *"Amorotoko udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketa, tramitazio eta udalari aholkularitza lanak"* kontratatzeko asmoz Amorotoko Udalak dei egindako prozeduraren jakinaren gainean egonik, eta nire erantzukizunpean, hona hemen nire ADIERAZPENA:

I. Aipatutako sozietatea, bere administratzaile eta legezko ordezkariak, eta sinatzailea ez daudela kontratatzeko inolako debeku eta bateraezintasun egoeretan, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatzen direnetan.

II. Aipatutako sozietatea, indarreango xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela.

III. Aipatutako sozietatea, Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, altan dagoela.

IV. Aipatutako sozietateak ez daukala zerga-zorrik ordain-arazpen aldian administrazio kontratatzailearekin, edo bermatuta dituela.

V. Aipatutako sozietateak, kontratua hau lortzeko, Administrazioa Baldintza Zehatzen Plegu honek ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, bereziki 12. eta 17. baldintzetan zehaztutakoak.

....., 202…ko ..... ren .....(a)

Izenpea eta zigilua

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

II ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKO EREDUA

.....jaunak/andreak, helbidea .....…… PK ……., NAN zk. ....., telefonoa ..... e-posta..... duenak, zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean edo ondorengoaren ordezkaritzan..... helbidea ..... PK ……., telefonoa ..... NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera) ....., *"Amorotoko udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketa, tramitazio eta udalari aholkularitza lanak"* kontratatzeko asmoz Amorotoko Udalak dei egindako prozeduraren jakinaren gainean egonik, eta nire erantzukizunpean, hona hemen nire ADIERAZPENA:

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: ..... €, gehi ..... €, azken kopuru hori BEZaren % .....ari dagokiona. Epea hau izango da: ..... Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta kontratistaren industri onura ere.

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria, baldintza teknikoen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 202…ko ..... ren …..(a)

Izenpea eta zigilua

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

III. ERANSKINA. GAITUTAKO POSTA ELEKTRONIKOKO HELBIDEA IZENDATZEARI BURUZKO EREDUA

..... jaunak/andreak, helbidea .....…… PK ……, NAN zk. ....., telefonoa ..... e-posta..... duenak, zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean edo ondorengoaren ordezkaritzan ..... helbidea ..... PK ……, telefonoa ..... NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera) ....., *"Amorotoko udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketa, tramitazio eta udalari aholkularitza lanak"* kontratatzeko asmoz Amorotoko Udalak dei egindako prozeduraren jakinaren gainean egonik, eta nire erantzukizunpean, hona hemen nire ADIERAZPENA:

Ondoren adierazten den gaitutako posta elektronikoko helbidea izendatzen dudala, bertan egiteko Amorotoko Udalak parte hartzen dudan kontratazio espediente honi dagozkion edozein motako errekerimendu, komunikazio eta jakinarazpenak:

E-posta helbidea: …….

....., 202…ko ..... ren …..(a)

Izenpea eta zigilua